

AITA SANTU BERRIA. BENEDIKTO XVI.a

Apirilaren 19an, arratsaldeko 17.50ean, Kapera Sixtinoko tximinia ke zuria botatzen hasi zen. Lehenengo segundoetan zalantzak izan ziren ea kea zuri-zuria zen ala aurreko kasuetan bezala gris itxurakoa. Inguruan ginenok badaezpada ere berehala hurbildu ginen San Pedro plazara. Vatikanotik adierazi zuten ke zuriaren ondoren kanpaiak joko zituztela, hasieran Basilikakoak eta gero hiriko eliza guztietakoak. Minutu gutxira, astiro-astiro kanpaiak beren hotsa zabaldu zuten.

Jorge Arturo Medina Kardinalak XXI. mendeko lehenengo konklabean aukeratutako Aita Santu berriaren izena jakinarazi zigun: "Berri on bat eman behar dizuet: badugu Aita Santua. Josef Ratzinger kardinal agurgarria, aitasantutzarako izen hau hartu duena: Benedikto XVI.a".

Jendeari aurkeztuta, hautatuak bere lehenengo hitzak zuzendu zituen:

"Anai-arreba maiteok: Joan Paulo II.a Aita Santu handiaren ondoren, kardinal jaunek neu hautatu naute, Jaunaren mahastiko langile xume eta apala. Jaunak bitarteko eskasak erabiliz lan egiten duela pentsatzeak pozten nau. Uste osoa dut zuen otoitzetan.




Jaun Berpiztuaren pozaz eta haren etengabeko laguntzaz, geure ondoan dugun Maria haren Ama guztiz santuarekin batera lan egingo dugu.

Jendearen agurra jaso ostean, lehenengo aldiz Urbi eta Orbi bedeinkapena eman zuen, Erromari eta munduari, bere pastoral zerbitzua Erromako elizbarrutiko sendiari, Eliza osoari eta munduari zuzenduta dagoelako.

Konklabea azkarra izan zen, bi egunetakoa. Laugarren bozketan aukeratu zuten Ratzinger S. Pedroren 264. ondorengoa. Aukeraketa honekin gauza bat garbi gelditu da: kardinalen elkargoa batuta dagoela. Ratzingerrek berak, sarrerako mezan adierazi zuen: "Nola jakin nork izan behar duen? Nola aurkitu ahal izango dute kultura eta herrialde guztietatik etorritako 115 kardinalak, nori eman nahi zion Jaungoikoak batzeko eta loturak askatzeko eginkizuna? Konklabean parte hartu duten kardinalak, aurreko aitasantutzaren jarraipena nahi izan dute, Benedikto XVI.a urte askotan Joan Paulo II.aren hurbileko kolaboratzailea izan delako.

Josef Ratzinger, 1927ko apirilaren 16an jaio zen Alemaniako Markt am Inn herrian. Larunbat santua zen. Hurrengo egunean, Pazko gaubeilan bedeinkatutako urarekin bataiatu zuten. Egoera sozial zailean etorri zen mundura Josef. Urte zailak ziren Alemaniarentzat: langabezia, ekonomiaren jaitsiera, ekintza bortitzak... Aita jendarmeriako komisarioa zen, nekazari familiarikoa. Ama, berriz, artisauen alaba. Hotel batzuetan sukaldarilanak egin zituen.

Herriko erretorea azkar konturatu zen Josef-ek etorkizun handia zuela, horregatik haren gurasoei seminarioan sartzeko eskatzen zien behin baino gehiagotan. Aipatu behar dugu familiarian bazela beste apaizgai bat, Georg, anaia zaharra; horregatik gurasoek ezin zuten Josef-en ikasketak ordaindu. Ahalegin handiak eginda, lortu zuten ikasketak pagatzea.



Ratzinger familia.

Bere nerabezaro eta gazte urteak Traunsteinen, Austriako mugatik kilometro gutxira dagoen herrixka batean igaro zituen. Hemen jaso zituen bere kristau-heziketa eta kultura-formazioa. Askok lagundu zion honek Josef-i nazien erregimena jasateko. Egoera latz honetan aurkitu zuen bizitzaren balioa eta Kristoren argia. Bigarren mundu gerrako azken hilabetetan, zerbitzu antiaereoetako laguntzaile izateko dei egin zioten. Baina kristau-balioak oso gogoan izan zituen beti...

Seminarioan sartuta, filosofiako eta teologiako ikasketak burutu zituen Munich eta Frisingako unibertsitateetan. Urte haueetan asko sakondu zuen teologia-gaietan, bereziki San Agustinen lanetan. 1951ko ekainaren 29an apaiz ordenatu zen eta berehala irakaskuntzan bere lehenengo urratsak ematen hasi

zen. Unibertsitate ospetsuetan aritu zen irakasle: Bonn-en, 1959tik 1963ra; Münster-en, 1963tik 1966ra; eta Tubinga-n, 1966tik 1969ra. Urte honetan, 1969an, Ratisbonako unibertsitatean, dogmatikan eta dogmaren historian katedradun izatera heldu zen.

Teologian bide berriak irekitzeko asmotan, 1972an Hans Urs von Balthasar, Henri de Lubac eta beste teologo ospetsu batzuekin batera "Communio" teologiako aldizkaria sortu zuten.

Teologoen artean aurrerakoitzat hartzen zuten Ratzinger. Horregatik Josef Frings, koloniako artzapezpikuak aditu bezala eraman zuen Vatikanoko II. Kontziliaora.

Kontzilioan izan zuen esku-hartze garrantzitsuagatik 1977an Paulo VI.ak Munich eta Frisinga-ko gotzain eta hilabete gutxira kardinal izendatu zuen. Gotzain-goiburutzat hau aukeratu zuen: "Egiaren laguntzailea". Berberak azaldu zuen: "Alde batetik hori zela, uste nuen, nik lehen irakasle gisa izan nuen zereginaren eta nire misio berriaren arteko erlazioa. Moduak ezberdinak izan arren, egia jarraitzea eta egiaren zerbitzuan izatea, indarrean daude betiere. Eta, bestalde, goiburu hori aukeratu nuen, gaurko munduan egiaren gaia ia guztiz baztertzen delako; izan ere, gizakiarentzat handiegia dirudi, baina egia falta denean, guztia dator behera".

Horrela, Elizaren barruan karrera azkarra egiten hasi zen. 1978an Joan Paulo I.a eta Joan Paulo II.a aukeratu zituzten konklabeetan parte hartu zuen. Gutxi dira hiru konklabeetan parte hartu dutenetatik bizirik daudenak.

1981ean Joan Paulo II.ak Erromako kuriako posturik garrantzitsuenetako bat eman zion, hots, fedearen doktrina zaintzen duen kongregazioko buru izatea. Kargu honetan izan ditu, alde batetik, kritikak, talde edo mugimendu aurrerakoen aldetik eta, bestetik, txaloak, mugimendu kontserbadoreen aldetik. Bestalde, Aita Santuaren Bibliako Batzordeko buru eta




Ratzinger apaiz gaztea Josef Frings kardinalarekin kontzilioko lanetan.

Nazioarteko Batzorde Teologikoaren buru izandakua izan zen 1981eko azaroaren 25ean.

Bere lanen artean, 1968an argitaratu zuen "Kristautasunari buruzko sarrera" aipa dezakegu. Liburu honetan fedeari buruz unibertsitatean egindako irakaspenak biltzen ditu. 1985ean "Fedeari buruzko informea" liburua argitaratu zuen. Aipagarria da honen izaera eta lanei buruz idazle batzuek ateratako "Egiaren eskolan" liburua ere.

Josef Ratzingerrek sari asko jaso ditu. Adibidez "doctor honoris causa" eman diote Limako unibertsitate katolikoan (1985), Iruñako unibertsitatean (1998), besteak beste.

Zein dira Aita Santu berriaren erronkak? Nik hiru aipatuko nituzke. Lehenik eta behin gotzainen artean batasuna sendotzea. Ratzingerrek sarrera mezan adierazi zuen bakarrik ezin duela eraman zama hau. Horregatik gotzainen proposamenak,



iritziak oso kontuan hartu behar ditu. Elizak bizi duen aldaketa egokiagoa izateko, beharrezkoa da iritzi desberdinak ikustea.

Bigarren erronka Joan Paulo II.ak hain ongi landu zuen gazteekiko hurbiltasuna. Ez da erraza gazteei beren bizitzarako balio dizkieten mezuak zuzentzea. Joan Paulo II.ak bere bizitzarekin erakutsi zuen. Abuztuan, Koloniako hirian munduko gazteen batzarra ospatuko da.

Aita Santuak gazteekin egingo duen lehenengo bilera izango da. Gogoratu nahi ditut Aita Santuak bere sarrerako mezan gazteei zuzendu zizkien hitzak: "Horrela, bada, nik gaur indar handiz eta uste sendoz, eta urte askotako eskarmentua oinarri hartuta, gauza bat esan nahi nizueke zuoi gazteei: ez izan Kristoren beldur! Berak ez du ezer kentzen eta dena ematen du. Eta norbere burua ere ematen duenak, emandakoa ehun aldiz hartzen du. Bai, ireki ateak Kristori, ireki erabat eta benetakoz bizitza aurkituko duzue".

Hirugarren erronka erlijioen arteko elkarriketa da. Aurreko aitasantutzan Joan Paulo II.ak hain ongi landu zuen gaia. Elizak bere besoak zabaldu behar dizkie beste erlijioei, denok gatoz Aita berarengandik. Ezin dira ideiak ezarri, fedea sakonago nola bizi daitekeen aztertu baizik.

Aitasantutza hasi berri du Benedikto XVI.ak. Bere lehenengo mezuetan elkarriketarako deia egin du. Inoiz baino garrantzizkoagoa da elkarriketa hau. Eliza osatzen dugun guztion artean eraiki behar ditugu hiru berriak ahaztu gabe gure fedearen oinarri eta gidaria Nazaretoko Jesus dela.

Jon Korta, Erromatik